Distopikoa

Mikel Garciak *Argia*ko bere blogean idatzitako artikulua irakurri, eta hausnartuko dugu adimen artifizialak eragindako hainbat egoera distopikori buruz.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Erabakiak nola hartzen ditugun hausnartu.**
- **Ulermen-galderei erantzun.**
- **Lexikoa aztertu eta ariketak egin.**
- **Solasaldia egin.**
- **Galdera erretorikoei eta "komatxoen artean" esandakoei erreparatu.**
- **Erabakiak hartzeari buruzko hausnarketa idatzi.**



Adimen artifizialak sortutako irudia

Irakurri aurretik

BAKARKA

1. Dilemak

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Erantzun galderei, eta eman erantzun horien berri euskaltegiko foroan.

Erabaki zailen aurrean gaudenean, denok ez dugu berdin jokatzen; nola hartzen dituzu zuk erabakiak? bat baino gehiago hauta dezakezu.

a) Lagunei iritzia eskatzen diet.
b) Etxekoei iritzia eskatzen diet.
c) Adimen artifizialari iritzia eskatzen diot.
d) Nire senari jarraitzen diot.
e) Gaiaren arabera....



vitaly-gariev-W7emkE5Dpbo-unsplash

Erabaki zailen aurrean, erabakia hartu beharrak estutzen zaitu? Zergatik?

Erabaki okerra hartzearen beldur zara? Zergatik?

Zer da erabaki ona, eta zer txarra?

Eman kideek esandakoari buruzko iritzia foroan.

BAKARKA

Irakurri bitartean

2. Zer dio Mikel Garciak?

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Irakurri testua, eta erantzun hurrengo orrialdeko galderei.

JENDARTEAN
gizarte gaiak, hezkuntza eta noizbehinka zinema
ARGIA



Mikel Garcia

Erabakia ChatGPTren esku utzi du 13 urteko Aitorrek

Kasu erreala da, baina mutikoari izena aldatu diogu: Aste Santuko opor egunetan familiarekin ala futbol taldeko lagunekin joan, zalantzak zituen Aitorrek; patxadaz pentsatzeko esan zioten etxean, bi aukerak onak zirela. Zer egin argi ez zuenez, dilema txatbotari planteatu zion eta honek erantzun zion familiarekin joateko oporretara. Kito, hautu zuzena hori zen orduan, horixe “erabaki” zuen Aitorrek, lasai geratu zen.

Oporretan haiekin joatea zergatik hautatu zuen galdetzean jakin zuen amak 13 urteko semeak hala hartu zuela deliberoa. Tira, pentsatuko du Aitorrek, erosoago horrela, buruko min gutxiago, eta erabaki “okerra” hartzeko beldurra ere uxatuta, hautu egokia jaso izanaren segurtasun sentsazioa lortuta, makina-orojakile-objektiboak ongi baitaki zer komeni zaion Aitorri.

Gutxienez bi eztabaida zabaltzen ditu aferak. Batetik, zergatik hartu du txatbotak erabaki hori? Makinaren erantzunak elikatzeko jaso duen –aurreiritzi eta sesgodun– zein informazio izan ditu irizpide, esateko familia dela hautu egokiena? Zenbateraino ezagutzen du Aitorren errealitatea, testuingurua, kezkak eta desirak? Bestetik, zein ondorio ditu erabakimena beste baten esku –interes eta helburu jakin batzuei erantzuten dien makina baten menpe– uzteak? Nola eragiten dio horrek pentsatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna garatzeari, norbere hutsegite eta ardurak kudeatzeko ahalmenari? Azken finean, “aditu orojakilearen” erantzuna baldin badugu, zertarako jarri gauzak zalantzan?

Ohitu ote daitezke belaunaldi berriak eguneroko eta bizitzako erabaki txiki, handi eta baita inportanteak ere adimen artifizialaren esku uztera?

Diana Franco Egurenek ARGIAn idatzitako zutabeetako batean kontatu zuen badirela adimen artifiziala txertatuta duten jostailuak, pelutxezko hartzak adibidez, haurrarekin hartu-emanean aritzeko diseinatuak. Ume horiek txikitatik normalizatuko dute humanizazioa eta enpatia simulatu ditzakeen adimen artifizialarekin solastatzea. Nagusiagoen artean, berriz, kontra egiten ez dizun –are, lausengatzeko joera omen duen– "laguna" bilakatu da ChatGPT batzuentzat, psikologo lanak egiten dituena, norbere konbikzioak indartu baino egiten ez dituena.

Apur bat distopikoa guztia, espiritu kritikoa jorratzearen garrantzia hainbeste aldarrikatzen dugun garaiotan.



galina-nelyubova-3ARFkqm3cf0-unsplash

1. Zergatik sentitu zen Aitor lasai txatbotaren erantzuna jaso ondoren?

a) Txatbotaren erantzunak bere gogoarekin bat egin zuelako.
b) Txatbotak erantzun "objektiboa" eman eta huts egiteko arriskua saihestu zuelako.
c) Txatbotak bazuelako Aitorrek futbol-taldeko lagunekin zuen harremanaren berri.

2. Egileak zergatik kritikatzen du txatbotaren gomendioa?

a) Ez duelako erantzun testuingurua ezagututa, aurreiritzietan oinarrituta baizik.
b) Familiarekin joatea erabaki okerra izan zelako Aitorrentzat.
c) Txatbotak ez duelako teknikoki gaitasun nahikorik gomendioak emateko.

3. Zer ondorio izan ditzake erabakimena txatbotaren esku uzteak?

a) Erabakiak hartzeko gaitasuna eta pentsamendu kritikoa kalte ditzake.
b) Gatazkak gutxitzea ekar dezake, buruhausteak ere gutxituko direlako.
c) Arlo batzuetan, menpekotasun teknologikoa garatzea ekarriko luke.

4. Zer erabilita hartuko lukete haurrek normaltzat adimen artifizialarekiko (AA) harremana?

a) Eskoletan ikaskuntza pertsonalizatzeko erabiltzen diren aplikazioak erabilita.
b) Emozioei erantzuten eta elkarreraginean jarduten duten jostailuen bidez.
c) Sare sozialetan zabaldutako joko kooperatiboen bidez.

5. Zer ideia nagusi transmititzen du azken paragrafoak?

a) Teknologiarekiko mendekotasuna ezinbestean onartu behar dela.
b) Paradoxikoa dela espiritu kritikoa goraipatzea eta, aldi berean, AAren menpe bizitzea.
c) AA erabiltzea arriskutsua dela haur eta gazteen kasuan soilik.

Erantzun zuzenak 8. orrialdean daude.

3. Lexikoa

TALDEAN

Elkartu hirunaka, irakurri zerrendako hitzak, aztertu testuinguruan, eta egin hipotesiak. Horretarako, bete taula.



dan-dimmock-3mt71MKGjQ0-unsplash

HITZA	ZER DA? Positiboa Neutroa Negatiboa	ANTZEKO HITZEN BAT EZAGUTZEN?	ZER DA? Adjektiboa Izena Aditza	ESANAHIA HONAKOA IZAN DAITEKE :

1. **Hautua**
2. **Deliberoa**
3. **Lausengua**
4. **Uxatu**
5. **Orojakilea**
6. **Afera**
7. **Sesgoduna**
8. **Erabakimena**
9. **Jorratu**

Erantzun zuzenak 8. orrialdean daude.

Hirunaka zaudetela, esan nolakoa iruditu zaizuen testua. Aukera bat baino gehiago hauta dezakezue, baina arrazoitu erantzuna.

- ☐ **Kritikoa**
- ☐ **Ironikoa**
- ☐ **Informatiboa**
- ☐ **Zientifikoa**
- ☐ **Distopikoa**
- ☐ **Sarkastikoa**

Zergatik?

Erantzuna 5. jardueraren ondoren komentatuko duzue.

Irakurri ondoren

TALDEAN

4. Erreparatu

Elkartu hirunaka, azpimarratu testuko galdera guztiak, eta erreparatu testuan "komatxoen" artean dauden hitzei. Ondoren, irakurri galderak eta osatu behealdeko ondorio-testua.



1. Zer motatakoak dira galderak?

a) Erantzuna emateko asmoz eginak, galdera eta informazioa elkarri lotuta ematen dituzten horietakoak.

b) Galdera erretorikoak; hau da, erantzuna emateko asmorik ez dutenak, hausnarrarazteko asmoz eginak.

2. Zertarako uste duzue erabili dituela egileak?

3. Zuen ustez, testuko galdera horiek zer ekarpen egiten diote testuari? Zer eragiten dute?



evgeni-tcherkasski-SqsbTuo5jP0-unsplash.jpg

- ...horixe **"erabaki"** zuen Aitorrek, lasai geratu zen.
- ... erabaki **"okerra"** hartzeko beldurra ere uxatuta...
- **"aditu orojakilearen"** erantzuna baldin badugu...
- **"laguna"** bilakatu da ChatGPT batzuentzat...

1. Zuen ustez, zer adierazi nahi dute hitzok?

2. Zergatik uste duzue daudela "komatxoen" artean?

Ondorioa

Galdera **erretorikoek** lortzen dute testuari kutsu _____ eranstea, irakurleari _____ dute helburu, ez **erantzunak** ematea. Egileak _____ indartzeko edo adierazteko erabiltzen ditu galderok. Komatxoen ("") artean dauden hitzak ere _____ esanda daude, horregatik daude **"komatxoen artean"**; esan nahi dutenaren _____ adierazi nahi baitu egileak.

Berreskuratu 4. orrialdeko bigarren ariketan erantzundakoa, eta alderatu ondorio-testuan jasotakoarekin. Komentatu talde handian ea bat etorri diren bi jardueretan erantzundakoak eta zein izan den testuaz nagusitu zaizuen lehen inpresioa.
Orrialde honetako erantzun zuzenak 8. orrialdean daude.

5. Solasaldia

TALDEAN

Elkartu hirunaka, eta egin solasaldia. Horretarako, zerrendako ideiak erabil ditzakezue.



Adimen artifizialak sortutako irudia

Gehiegi fidatzen al gara aurrerapen teknologikoekin?

- **Baietz esango nuke; izan ere...**

- Zer erabaki utzi AAren esku
- Haurrek adimen artifizialarekin harremana normalizatzeak ondorioak izan ditzake haien garapen emozionalean eta sozialean
- Txatbotek laguntza emozionala, aholkuak... eman
- AA gai enpatia “simulatzeko”
- AA, bakardadea gutxitzeko
- Ohikoa izango da harreman handiagoa izatea makinekin, pertsonekin baino

Hautatu taldean komentatutako bizpairu ideia, garrantzitsuenak iruditu zaizkizuenak, talde handian partekatzeko. Feedbacka irakasleak emango dizue.

BAKARKA

6. Erabakien algoritmoa

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Irakurri testuingurua, eta idatzi hausnarketa ikasleen blogean argitaratzeko. Saia zaitez ironia adierazteko ikusi ditugun bi baliabideak erabiltzen.

Erabakien algoritmoa



marco-kaufmann-0kbNh7XrJ7Q-unsplash

TESTUINGURUA

Azkenaldian, gero eta ohikoagoa da, eguneroko erabaki txiki nahiz handiak hartzeko, adimen artifizialera jotzea (gomendio-sistemak, erabakiak hartzeko aplikazioak, txatbotak...). Gehiago fidatzen gara makinaren 'objektibotasunaz', gure gaitasunaz baino.

Horretarako, idatzi 150 hitzeko hausnarketa, deskribatu nola hartzen dituzun erabakiak, adierazi erabaki on bat hartzea zer den zuretzat, eta azaldu zure ustez nola eragin diezaiekeen gure autonomia pertsonalari eta espiritu kritikoari erabakimena makinen esku uzteak.

Hausnarketan, ideia hauek gara ditzakezu:

- Noiz/zertarako erabili izan duzu adimen artifiziala edo txatbot bat?
- Fidatu zinen emandako erantzunaz? Fida gaitezke?
- Zertarako erabili behar da, eta zertarako ez? Zein dira marra gorriak?
- Inoiz oker zegoela konturatu zara?
- Nola jakin zer den egia eta zer ez?
- Zer abantaila eta zer arrisku ikusten dizkiozu adimen artifiziala erabiltzeari?
- Etorkizunean adimen artifiziala gehiago ala gutxiago erabiliko dugula uste duzu?

Irakasleak emango dizue feedbacka.

ERANTZUNAK

2. Zer dio Mikel Idiakezek?
1- b; 2- a; 3- a; 4- b; 5- b.

3. Lexikoa
1. Hautua: izena. Erabakia. (Positiboa).
2. Deliberoa: izena. Erabakia. (Positiboa)
3. Lausengua: izena. Norbaiti, haren gogoa edo onginahia irabazteko egiten zaion hitza, txera edo keinua, askotan, engainuzkoa. (Negatiboa)
4. Uxatu: aditza. Norbaiti edo zerbaiti ihes eragin, hurbiltzen ez utzi. (Negatiboa)
5. Orojakilea: izena. Oro dakiena, dena dakiena. (Negatiboa)
6. Afera: izena. Egitekoa, arazoa. (Negatiboa)
7. Sesgoduna: Adjektiboa. *Sesgoa* edo alborapena duena: zerbaiterako joera duena. (Negatiboa)
8. Erabakimena: izena. Erabakitzeko gaitasuna edo ahalmena. (Positiboa)
9. Jorratu: aditza. Landu. (Positiboa)

5. Erreparatu
Galdera **erretorikoek** lortzen dute testuari kutsu **ironikoa** eranstea; irakurleari **hausnarraraztea** dute helburu, ez **erantzunak** ematea. Egileak **iritzia** indartzeko edo adierazteko erabiltzen ditu galderok. Komatxoen **(“”)** artean dauden hitzak ere **ironikoki** esanda daude, horregatik daude **“komatxoen artean”**; esan nahi dutenaren **kontrakoa** adierazi nahi baitu egileak.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Patxadaz pentsatzeko. Bi aldiz pentsatzeko, sakon hausnartzeko.
Hautu zuzena. Erabaki egokia, aukera zuzena.
Hartu zuela deliberoa. Hartu zuela erabakia.
Bi eztabaida zabaltzen ditu aferak. Bi eztabaida zabaltzen ditu kontuak, arazoak.
Aditu orojakilearen. Dena dakien jakintsuaren.
Adimen artifizialarekin solastatzea. Adimen artifizialarekin hitz egitea.
Lausengatzeko joera. Hitz ederrak esateko joera, konplimenduak egiteko joera.